JOSE ANTONIO OARARTETA UNDABEITIA

Hirurogei eta hamazortzi urte zituela hil zitzaigun istripuz Bizkaiko Urberoagan, Markina inguruan, 1978ko Abenduaren 29ean abade on eta idazle trebea, Jose Antonio Oararteta Undabeitia. Goizeko zortziretan irten zan Gernikatik Donibanerantza bere adiskide Alberto Onaindia ikustera, Jose Urien Undabeitia, Mungiako osagilea, berebilaren eroale zalarik. Goizeko hamarrak inguruan errekara jausi ziren eta berebil barruan ito ziren biak. Goian beude.

Ajengiztarra zen Oararteta jauna, 1900.eko Otsailaren 18an jaioa. Gazte gaztetatik hartu zuen abadetzarako bidea, bera baino zaharrago zen Joxe Mari anaiak hartu zuen bezaeaf eta gero gazteago zen eta oraindik bizirik dagon Dionisiok hartuko zuen bezalaxe. Ezuen Jose Antoniok bere estudioetan zori makalik izan, Eguzkitza berbera izan zuen irakasle eta. Lekeition ikasi zituen maisu trebe honekin bere lehenengo ikasketak. Gero Gasteizera jo zuen Filosofi eta Teologi gaiak ikastera. Eleiz karrerako azken urteak Burgosen ikasiaz, bertan lortu zuen Teologiako Lizenziatura. Eta azkenean, 1923 ean hospatu zuen Meza Berria. Urte haietan Afrikatik ere ibili zen soldadutzako garaian.

Arabako Letonan bete zituen abadegintzako lehen hiru urteak eta Arano jaunaren eraginez Bizkaiko Ibarrangelura etorri zen 1926ean. Eta berriz euskal herri baten finkatuta zegoenez gero, euskaraz idazten hasi zen. Jesusen Bihotzari zuzenduta dago Ibarrangeluko parrokia eta harrizko irudi handi batek burutzen du eleiz dorrea: bere babespean idatzi zuen Oarartetak *Jesusen Biotzaren Illa,* 1931.ean Zornotzako "Jaungoiko Zale"ren irarkolan argitaratu zena. Baina

pilota partidu baten parte hartu zuela eta salatua izan zen eta Ibarrangelutik irten beharrean aurkitu zen. Mallabiako parrokiara destinatua izan zen eta Pradera organulariaren etxean ostatu zen. Azkenean Mateo Mugika Gotzai Jaunak apaiz honekin egindako okerra zuzenduz, Markinako parrokiara bidali zuen.

Gerraldiko egun larriak etorri zirenean, Markina utzirik Santoña eta Santanderretik zehar, 1937 ko Uztailean Bordelera jo zuen eta hile betean bertako Seminarioan bizi ondoren, Malinasko Kardenal Jaunak deituta Belgikara joan zen Abuztuaren 13 ean. Euskal haurren zaindari edo kapeilau bezela iraun zuen urte pare baten Belgikan eta handik Frantziara itzuli zen, Ammiens inguruan errefugiatuen artean bere abadegintzako lana zortzi urtetan eginaz. Azkenean, 1946 ean Ajengizen hauzotu zen. Gerraldiko gertaeren barri jakin nahi duanak badu Euskaltzaindiko Artxiboan zerikusirik, esaterako Oarartetak berak idatzitako *Cronican*. Jose Antonioren anai dan Dionisiok emandako originala dugu hemen Artxiboko paper artean.

1949 ko Apirilaren 20ean Lemoizko koajutore hautatua izan zen gure Oararteta jauna. Hala dio Jose Grauk izenpetutako agiri batek: "Por cuanto nos consta que en el Presbítero D. Jose Antonio Oararteta y Undabeitia concurren las circunstancias de aptitud, moralidad, celo y demás necesarias para el exacto y fiel cumplimiento de tal cargo..." Eta ordutik aurrean Lemoizen iraun zuen bai abadegintzako lanetan baita ere euskararen aldeko burrukan. Hirurogei eta hamaika urtedun zalarik Gernikara etorri zen behar zuen atsedena gozatzen. Eta gutxien uste genuean, joan zaigu mundutik betiko atsedenera.

Haren euskarazko lanak, baten faltan, Aita Santi Onaindiak ematen dizkigu *Euskal Literaturaren Historian* (V, 89-90 or.) Aipagarrienak hauek dira:

1. Aratuzteko Iru-urrena (Zornotza, 1930)
2. Jesusen Biotzaren I11a (Zornotza, 1931)
3. Manuale Sacramentorum, Imanol Lekuonarekin batera egindako itzulpena (Zornotza, 1934)
4. Sasi Ezkontza (antzerkia, Euzkadi egunkaria, 1934)
5. Baltzeoa pekatu ete da? (Zornotza, 1936)
6. Mirenen senargeya (Bermeo, 1936)

Oararteta (ezkerrean) eta Aita Onaindia Gernikako Batzar Etxean.

7. Misterio del Matrimonio (Bilbao, 1949)
8. Liturgi gaiak (Bilbon, Ibargutxi, Manterola eta beste batzuekin elkar lanean)
9. Begoñako Ama Birgiñari Bederatzi-urrena (Bilbo, 1963)
10. Mikel Goi Aingeruari Bederatzi-urrena
11. Ixidor Deunari Bederatzi-urrena
12. Arraseko M. Adam Kalonjearen "Sermons et Instructions" liburuen itzulpena
13. Igandeetako Sermoiak (argitaratu gabe; originalak Euskaltzaindiko Artxiboan daude, Dionisio Oararteta jaunak emanda)
14. Ekin, Anaitasuna eta Karmel aldizkarietan agertutako lan batzu.

Bilboko Udal Aurrezki kutxak antolatu zuen 1977 ean euskal literatur sari bat eta Oarartetak irabasi zuen bigarren saria bere *Zar-barri* liburuxkarekin.

Euskararen alde hainbat lan egin zuen euskalzale gizon honen oroimenez Euskaltzaindiaren aldizkarian zeozer geratu dedin idatzi dut bizitza eta aipamen laburtxo hau. Azkenengo urteetan adiskide izan nuen Jose Antonio Oararteta eta Undabeitia Jaunak merezi du eta.

Jose Antonio Arana Martija